

Jolas-hitzak: igarkizunetik iragarkizunera

Kontrarioen jolasa da existentzia (Hölderlin)

“Utzi jolasari, eta ekin”, esan ohi da serio jartzean. Baina nork uka dezake lana bera jolasetik hurbil dagoenik? Jolas produktibo bat baino ez da lana, eta produktibo izate hori ez da beti lortzen den zerbait. Lan bat produktibo bihurtu aurretik jolas-prozesu luze eta zehatz bat dago, proiektuz proiektu garatua.

Beraz, jolasa giza izaeraren muinean dagoela esatea ez da gehiegikeria. Eta ez soilik giza izaeraren muinean, baizik eta animalia ororen jokabideetan ere zenbat eta zenbat dago jolasetik? Areago, atomoen barne-bizitzak jolas arautu bat dirudi, eta orobat unibertsoaren kaos-kosmos jolasak. Kontrarioen jolasa baita existentzia.

Jolasarekin ematen diogu hasiera bizitza bati, sexu-jolasarekin (edo in vitro antolatzen dugun espermatozoide-lasterketarekin). Amaren sabelean hasten gara gorputzarekin jolasean, eta ukimenetik edo entzumenetik jasotzen dugunari erantzuten. Gaur egun garrantzi handia ematen zaio sabel-garaiko harremanari: hitz, doinu, ukimen... haurrarekiko lehen komunikazio-bideak dira.

Jolasaren ezaugarri batzuk honako hauek dira, besteak beste, eta gaia guri dagokigun eremura ekartze aldera: mugimendutik hasten da jolasa, gorputz-mugimendutik, buru-mugimendutik; eta hortik dantza, ukimen-jolasak, erritmoak. Hitzaren alorrera etorrira, bigarren ezaugarria hotsa da, soinuen erritmoa, antzekotasun-desberdintasunak.

Mugimenduaren eta doinuaren jolasak sabeletik beretik hasten dira, eta jaiotzatik beretik areagotu egiten dira, hizkuntzarako, katurako eta poesiarako atea zabalduz hasiera-hasieratik.

Herri-tradizioak baditu jaioberrientzako jolasak, eta gurasoei berez eta senez irteten zaizkien inprobisazioak, mugimendu erritmikoak eta doinu-hitzak elkartuz.

Onomatopeiak eta jolas silabikoak erabili izan dira tradizioz haurrarekin lehen hitzezko kontaktua gauzatzeko. Harrigarria da nola, antropologo zenbaitek aztertu dutenez, gizadiaren lehen doinu eta poemak ere silabikoak diren, hizkuntzan esanahi kontzeptualik ez duten silaben hurrenkerak, mezu emozionalak transmititzen dituztenak. Gizakion arteko lehen hizkuntza-komunikazioa emozionala izan da, soinu silabikoen bidezkoa, haur jaioberrieekin egiten denaren

antzekoa, kontzeptua baino lehenagokoa; izan ere, kontzeptuak arrazoiaren piztea dakar. Komunikazio kontzeptuala baino lehen, komunikazio emozionala dago, eta horrek bizitza osoan irauten du, nahiz eta, adinean aurrera egin ahala, komunikazio kontzeptualak gero eta leku handiagoa hartu. Hori oso kontuan izan behar da haur txikiekin genero literarioak eta hizkuntza lantzerakoan. Arlo horretan, herri-tradizio aberats bat dugu eskura, haurren izaerarekin zuzenezuzenean konektatzen duena.

Hitzaren jolasa jaiotzatik dator

Esaten da gurasoen eta zainzaileen hitz-jolasa haurraren belarriak eta hots-artikulazioaren sistema prestatzeko egiten dela, gero hitz egiteko gai izan dadin. Bide horretatik, badago joera bat oso goizetik trazu-artikulazioa ere lantzekoa, gero idazteko gauza izan dadin. Ez diot aitzakiarik aterako ikuspegi horri, mekanismoaren aldetik horrela baitira kontuak, gaur egungo neurozientzien aurrerapenak ere gehitzen bazaizkio horri guziorri.

Horri uko egin gabe, beste zerbait adierazi nahian nabil ordea. Badagoela komunikazio emozional bat, animaliatik gizakira garamatzana, eta hitzaren jolasak horri erantzuten diola; gurasoak, haurra hitzun gisa trebatuz ari delarik, batik bat maitasuna eta babesa adierazten dizkiola, eta existentziaren eta bizitzaren jolasera ekarri nahi duela hasiera-hasieratik, Hölderlinek zioen kontrarioen jolas horretara. Hori ahaztuz gero, ahalegina oso mekanikoa eta oso hotz gertatzen da, nahiz eta eduki artistikoak ere landu beharra aldarrikatu.

Jolas sinbolikoa

Jolas sinbolikoaren eta jolas librearen garrantziaz psikologo eta pedagogo entzutetsu ugari mintzatu dira; ez dut uste horretaz inor konbentzitzen saiatu beharra dagoenik. Jolas sinboliko hori, dena den, ez da haurrak denbora librean bakarka edo taldean bere gisara egiten duen errealitatearen imitazio edo antzerki hori soilik. Batik bat lehen urteetan, errealitatearekiko harreman globala nolabaiteko jolas sinboliko bat da. Hitzaren jolasa, gorputzaren jolasa, batez ere sinbolikoak dira, errealitatearen imitazio eta antzerki eta birsortze. Beste modu batera esanda, pentsamendu magikoa da nagusi, eta pentsamendu magiko horretatik pentsamendu zientifikora urratsez urrats igarotzeko urte ugari behar dira. Kontua da pentsamendu magikotik zientifikora igarotzean, oso goiz hasten garela halako antzutze-prozesu batekin, agian pentsatuz pentsamendu magikoa zikiratzeak pentsamendu zientifikoa indartu egingo duela. Eta hori oker handia da, edo hala iruditzen zait behintzat. Bien arteko zubia arte-adierazpena da, bai poesia eta narrazioa (hizkuntzaren jolasari dagokionez), bai marrazki-margolana, bai dantza... Horiek pentsamendu magikoa aberastu egiten dute, eta, bide batez, pentsamendu zientifikorako urratsak bizkortzen dituzte, bietako bat zapuztu gabe. Esaten ari naizenak begi-bistakoa lirudike, baina hezkuntza-sistemari errepaso bat

gaingiroki emateak beharbada gauzak horrela ez direla adieraziko digu. Arte bidezko heziketa ez da orainsu asmatua; baina, nire iduriko, ez da artearen arlo ugaritan trebatzeko tresnak eskaintzea eta margolari eta dantzari eta musikari iaioak ateratzeko egitarau zoragarri batzuk antolatzea, baizik eta adierazpide magikotik adierazpide zientifikora modu aberasgarrian igarotzeko pedagogia bat lantzea.

Hortxe kokatu nahi nuke hitzaren jolasari buruz dudan ikuspegia. Beste modu batera esanda, helduon parte-hartzean, trebatzaile eta teknika-erakusle baino lehenago emozio eta bizikizun-komunikatzaile izan behar dugula, haurren adierazpen sinbolikoetan errespetu handiz parte hartu eta hura aberasten saiatu; horretarako, badugu herri-tradizio aberats bat eta arlo ugaritako arte-lanak, haurrei egokiak direnak eskaintzeko.

Bertsolari eta poeta txikiak

Hitzaren jolasa, hortaz, bertsolari eta poeta txiki trebatuak entrenatzeko baino lehenago, emozio-harremanen bideratzaile izateko dela esango nuke. Gurasoak umeari sehaska-kanta bat kantatzen dionean, ez da pentsatzen ari ume hori tranpaldora igota bertsotan egiteko prestatzen ari denik; burutik pasatu ere ez zaio egiten; aitzitik, bere barne-maitasuna adierazten dio, babes, goxatu egin nahi du, lasai lo har dezan eta modu egokian garatu dadin bizitzan. Berrit diot, agian begi-bistakoegia dirudi honek guztiak, baina hezitzaileak burua non, harantz darama hizkuntzaren gurdia, eta burua tranpaldotan badauka haurraren barne-osaeran eta garapen existentzial orokorrean baino gehiago, bada, hizkuntzaren eta hitz-jolasaren jokabide formal-mekanikoak lehenetsiko ditu gizatasunaren eta horrek esan nahi duen guztiaren aurrean. Horrek berdin balioko luke matematika eta beste arlo batzuk lantzeko, baina, hizkuntzaren kasuan, areagotu egiten da kontua, gure izatearen lehen adierazpideetako bat, nagusia ez bada, baitugu hizkuntza.

Lehen hitz-jolasak

Bi ezaugarri nagusi dituzte lehen hitz-jolasek: edo lasaitzea edo suspertzea. Sehaska-kantak dira lehen lasaigarriak; erritmo binarioen bidez halako eragin hipnotiko bat bideratzen da, haurra lasaitzeko, lokar dadin, bai, baina, baita haren psikea gugana ireki dadin ere, gure maitasun- eta babes-mezua sakonago hel dakion, beldurrak eta larritasunak uxatzeko, eta berarekin komunikazio emozional oso sakon bat lortzeko. Aurrerago, ipuinak ere antzeko egoera bat lortuko du. Espiritutik espiriturako edo izatetik izaterako komunikazio horrek pixka bat misterioitsua dirudi, eta zientziaren ikuspegitik agian zalantzan jartzekoa, baina, bizi izan duenak, badaki. Eta zenbait adituk berebiziko garrantzia ematen diote gerora bizitzan zehar egonkortasun emozional sendo bat izateko.

Horiek, lasaigarriak. Euskal tradizioak badu pieza ederrik arlo horretan; ederrenetako bat *ttunkurrunkun* delakoa.

Pieza suspergarriak, berriz, esnatzeko balio dute, zentzumenak pizteko, bizitzaren alde aktiboa bideratzeko. Eta, hor, *ttunkurrunkuren* pareko bat badugu, *ttikirrikittona* pieza, haurrari lehen dantza-zantzuak erakusteko, ukimenaren jolasa, kilimak, mugimenduaren jolasa eta kantu erritmikoaren jolasa uztartzeko.

Horra hitz-jolasen hasierak, eta horra tradizio sendo bat abiapuntuan.

Sehaska-kantetara itzulita, lasaigarri eta babesgarriak direla esan dugu, baina komunikazio emozional mingarriak ere badira tartean. Zu lasai, haurra, nik zaintzen zaitut, baina arazoak ditut bizitzan (aita gaiztoa tabernan dago eta halakoak), eta batzuetan triste sumatuko nauzu; hala ere, zu zara nire izarra eta ez zaitut inola ere alde batera utziko.

Igarkizun-jolasak

Igarkizuna erabili du tradizioak pentsamendu magikotik pentsamendu zientifikora igarotzeko bide naturalizat. Igarkizunean ez zaio pentsamendu magiko misterioitsuari uko egiten, baizik eta logika lateral deritzanaren bidez pentsamolde logikorako bidea jorratzen du, alde poetiko-metaforiko-sinbolikoa baztertu beharrean areagotuz. Ikus dezagun pieza hau:

Lau titiriti, bi tatarata.

Hor dago oraindik hizkuntzaren hasierako jolas sinbolikoa, erritmikoa, onomatopeiaz josia. Eta, sinestesiaren bidez, kontzeptu batera garamatza; metafora sinestesikoa erabiltzen du magiatik zientziara igarotzeko; ezaugarri enpirikoak eskaintzen dizkigu metaforarekin eta jolas erritmiko suspergarriarekin batera “lau titi-riti, bi tata-rata (turuta)”. Eta hortik dedukzio bat egin behar dugu (pentsamendu logikoa), baina indar metaforiko-poetikoa ahuldu gabe. Esaten ari naizenaren adibide bikaina, bikainik bada, eskaintzen digu herri-tradizioak.

Aspaldikoak dira igarkizunak, eta munduko alde guztietan erabili izan dira. Ekialde Hurbilekoak bereziki finak dira. Horien artean Salomon erregeri Sabako erreginak ipinitakoak ospetsuak dira. Esate baterako, honako hau: “Zein ur ez da

lurretik jaiotzen, ez zerutik erortzen, eta egarria du ematen?” Zaldiei lasterka eginarazten diezunean botatzen duten izerdia omen da. *Izerdia* esanda ere aski zen.

Hitzekin adierazitako igarkizunen ondoan, keinuekin edo irudiekin adierazitakoak ere badira. Sabako erregina hori eskuetan arrosa bana zuela joan omen zitzaion Salomoni, eta erronka bota omen zion, ea gauza zen asmatzeko zein zen benetakoa eta zein paperezkoa. Orduan, Salomonek leihoak zabaltzeko agindu zien zerbitzariei. Erleak sartu ziren, eta benetako lorera joan.

Beste batean, eszitiarrek enigma bat bidali zioten Pertsiaiko Dario Iari, haiei eraso egitekotan zela; igela, txoria, satorra eta bost gezi. Darioren mendeko buruzagi batek honako interpretazio hau egin zuen: “Eszitiarrek amore eman eta beren armak eskaintzen dizkizute (bost gezi), eta gainera ohore egiten dizute, naturako hiru elementuetan bizi diren animaliak oparitutuz: urekoa, airekoa eta lurreakoa”. Baina beste buruzagi batek honako esanahi hau irakurri zuen seinale haietan: “Satorrak bezala lur azpian edo igelak bezala ur azpian ezkututzen ez bazarete, edo txoriak bezala ihesi joan, gure geziak mende eroriko zarete”.

Homerok, ahozko literaturaren bildumarik handienetakoa idatziz ipini zuen hark ere, eman zuen igarkizunik: “Handi naiz jaiotzean, indartsuen naizenean txiki, eta zahartzaroan berriro handi”. Itzala da erantzuna, zeina handia baita goizean, txikia eguerdian, eta handia berriz ilunabarrean. Edo beste hau: “Ahizpak gara, eta bata bestearen heriotzatik jaiotzen gara”. Eguna eta gaua dira bi ahizpa horiek.

Euskal tradizioan “nik papaita, zuk papaita”, “tipitaki, tipitaki”, “pipitaki, papitaki”, “zer dela eta zer dela” eta horrelako formulen bidez ematen zaie hasiera igarkizunei. Askotan, igarkizunak ipuin batean korapiloa edo intriga sartzeko erabiltzen dira.

Igarkizunen muina jakin-mina da, hitzekin jolasteko, burua kitzikatzeko, mundua aztertzeko edo ezagutzen ez duguna aurkitzeko irrika. Horrez gainera, igarkizuna abstrakzio-ahalmenaren hastapen bat da, haurrak garatzen duen pentsaera logikoaren laguntzaile. Hitzaren eta hori adierazten duen igarkizunaren urruntasuna da, hain zuzen, abstrakziorako bidea, gehienetan metafora baten bidez adierazia. Igarkizunak joko metaforikoa bultzatzen du, eta horregatik poesiaren iturrietako bat da.

Igarkizunak matematika poetiko moduko bat dira, hitzaren aztiaren generoa. Igarkizuna ipintzen duena azti bihurtzen da; igarri behar duena, bilatzaile, haren buru-bizkortasuna eta irudimena suspertuz. Haurrentzat, etorkizuneko egarri intelektualaren, jakin-min zientifiko eta filosofikoaren ernalgarri izan litezke igarkizunak.

Aldi berean, igarkizunak bizitzaren ispilu ere badira, bizitza bera igarkizun handi bat besterik ez baita. Igarkizunak enigma bat du oinarrian; bizitzaren bideak ere enigmatikoak dira. Enigma horiek ulertu nahi ditugu, eta, hizkuntza egunerokoa eta zientifikoa puntu bateraino soilik iristen direnez, metaforak eta sinboloak erabiltzen ditugu enigma horiek azaltzeko. Metaforak eta sinboloak oinarrian igarkizun bat daramate; metafora eta sinboloa dira igarkizun horren

erantzunak, eta aldi berean beste igarkizun bat, zeinaren erantzuna beste igarkizun bat baita, inoiz amaitzen ez den kateatze etengabea; hori da poesiaren eta artearen ibilbidea: galderari erantzuna emanik, erantzun horrek beste galdera bat du oinarri; eta horrek formen eraldaketa amaigabea dakar.

Jose M. Satrustegik oso maite duen haur-poema zahar bat ekar genezake enigmaren adibidetzat: “Amak hil nau, aitak jan nau, nire arreba panpoxak berpiztu nau”. Poema horrek badu ipuin aldaera bat: amak mutikoa hiltzen du, eltzean egosi eta aitari ematen dio jateko; arrebak hezurak biltzen ditu, eta mutikoa berpizten du. Kontakizun horren antzekoak hamaika dira munduan, nabarientakoa Osirisen mitoa, edo Fenix hegaztiarena, zeina bere errautsetatik birjaiotzen baita hil eta gero. Zer adierazten digu poema-enigma horrek? Batek esango du, heriotza sinbolikoa ikus dezakegula, gurasoengandik askatu eta nortasun berri bat eraikitzen duen gaztearen eredu arketipikoa. Beste batek urtearen amaiera ikusiko du, eta neguaren errautsetatik urte berri bat jaiotzen dela. Izango da interpretazio sinbolikoak gutxietsi eta gizakijaleak gineneko oihartzun garbiak ikusiko dituenik. Alabaina, erantzun bakoitzaren haritik galdera berriak agertuko zaizkigu. Haur baten ahoan horrelako kanta ikaragarri bat entzunik, barruan hozkiarekin batera galdera ikur handi bat agertzen zaigu, ematen dizkiguten interpretazioek erabat asetzen ez dutena.

Igarkizunak era askotakoak izan daitezke:

-Erronka bat edo ziria sartzeko asmoa adierazten dutenak, beti ere erreferentearen deskripzioa oinarritzat harturik eta tradizioko konbentzio batzuei jarraiki eginak. Horien artean, bi eratakoak bereiz ditzakegu:

-Informazio osoa eskaintzen dutenak: “Bi ahizpa; bata nire izeba, bestea ez; nor ote beste hori?” (ama).

-Informazio garrantzitsuena soilik eskaintzen dutenak: “Tiroa behera bota, eta sudurrean jo” (puzkerra).

-Elkarri erronka egiteko ez direnak, adierazpen poetiko soilari dagozkionak. Horien artean bereiz ditzakegu:

-Metafora edo pertsonifikazioa oinarri dutenak. “Errege batek zuen alaba bakarra, pinpirina eta azkarra; errege zaharra egun zalea zen eta gauze egiten zuen lo; alaba azkarra gauzalea zen eta egunez egiten zuen lo. Aralarko leizeetan zeukaten jauregia, zilarrezkoa eta beilegia” (eguzkia eta ilargia).

-Bide okerretatik eramaten gaituzten igarkizunak, eskaintzen dizkiguten datuek ez baitute konbentzioa errespetatzen. Izan litezke iruzur egitekoak, polisemiazkoak edo paradoxazkoak. “Jon eta Joni joan ziren putzura; Jon ito egin zen; nor geratu zen” (Jo ni; eta jo egiten da).

Igarkizunak ahalik eta gehien ezkutatu behar du erantzuna, ahalik eta argibiderik zehatzenak eskaintzarekin batera. Igarkizun ona bada, asmatzen zaila izango da, baina erantzuna jakitean berehala ulertuko da; eta bigarrenez entzutean, are ederragoa irudituko da igarkizuna. Erantzuna jakitean,

igarkizunarekin lotu ezinik bagabiltza, ez da batere seinale ona. Lotura garbia eta ondo ekarria behar du.

“Goizean, lau hankatan; eguerdian, biren gainean; eta gauean, hiru hankarekin”. Erantzuna, gizakia, zeren, haur delarik lau hankatan ibiltzen da, heldu delarik biren gainean, eta zahartzean hirugarren hanka bat, makila, behar izaten baitu ibili ahal izateko. Azalpenak ez digu zalantzarik uzten, oso argia da. Hori da, hain xuxen, Esfingeak Tebaseko bidean bidaztiei ipintzen zien igarkizuna; igartzen ez zuena, jan egiten zuen. Edipok asmatu zuen erantzuna, eta Tebas piztia haren mehatxurik salbatu.

Haurrak, igarkizunaren erantzuna esatean, “a, bai!”, harritu edo egin behar du, buruan zerbait argitu balitzaio bezala; argi eta garbi ikusi behar du jokoaren trikimailua.

Igarkizunak lantzen eta berriak asmatzen hasteko, honako ariketa hau egin liteke:

-Hasieran, erreferentetzat objektuak hartzea da egokiena. Gauza konkretuekin lan egin eta gero, pasatu gintezke sentsazio psikologikoak edo ideia abstraktuagoak adieraztera.

-Har dezagun ohe bat. Aukera ditzagun zenbait ezaugarri: lau hanka ditu (mahai edo aulki batek bezala), burua ere badu (mahaiak ere bai). gauez haren gainean etzaten gara; hori adierazteko, adibidez, gau osoan bizkarrean eramaten gaituela esan genezake (hori ez du mahaiak egiten). Orduan, ohea identifikatzeko adina ezaugarri badauzkagu:

“Zuk papaita, nik papaita:

Baditu lau hanka

eta badu buru;

gau osoan bizkarrean

eramaten zaitu”.

-Har dezagun, esate baterako, semaforo bat, eta kontuan har ditzagun itxura eta argiak.

-Zeren antza du? Adibidez, piruleta batena. Horra hor semaforoaren metafora bat, haurraren bizipenetatik hurbil dagoena.

-Ezaugarri nagusiak: argia edo distira egitea, eta hiru kolore: gorria, laranja eta berdea.

-Non egoten da? Kalean.

-Ordezka ditzagun koloreak kolore hori duten gauzez. Hasierako metafora piruleta aukeratu baldin badugu, piruleta horrek dastamenarekin du zerikusia;

jarrai dezagun jolasa: eman diezaiogun gorriari marrubi zaporea, izaten baitira marrubi zaporeko piruletak; eman diezaiogun laranjari laranjaren beraren zaporea, laranjazko piruleta (horrela igarkizunaren erdian lagungarri bat sartuz); eta eman diezaiogun berdeari menta zaporea.

Horra igarkizuna: “Piruleta distiratsua kalean; orain marrubizko, orain laranjazko, orain mendazko”

Hedapen bat ere asma diezaiokegu: Zertarako da semaforoa? (igarkizunak asmatzeko beste galdera oinarritzko bat izan liteke *zertarako* hori). Autoen zirkulazioa antolatzeko. Imajina dezagun auto ilara bat piruleta erosten, hipermerkatu batean bezala.

Hona orain igarkizuna: “Piruleta distiratsua kale kantoian; orain marrubizko, orain laranjazko, orain mendazko; eta auto ilara bat hura erosi nahian”.

Ipin dezagun beste adibide bat. Oraingo honetan gertaera batetik abiatuko gara. Hanka hautsi nuen. Horren ondorioa zein da? Ezin nintzela ibili. Eta zer eman zidaten ibili ahal izateko? Makuluak. Bastoiari, makilari hanka deitu diogu gorago eman dugun Esfingearen igarkizunean. Beraz, makuluen ordeztan, ipin ditzagun bi hanka. Ezaba dezagun orain tarteko informazioa, hots, ezin nintzela ibili adierazi dugun informazio hori. Hanka hautsi nuen. Makuluak eman zizkidaten. Hori aski dugu igarkizuna osatzeko.

Hona hemen: “Hanka nuen hautsi, eta eman zizkidaten bi”.